

Bake garaia, herriaren garaia

ETAK behin betiko armak utziko dituela iragartzearekin batera, bukatu da Euskal Herriaren historiako kapitulu bat. Ahaztu behar ez den kapitulua, baina gizarteak aspaldi amaitu nahi zuena. Iritsi da eguna eta orain, bakeaz hitz egiten hasi behar da.

Bakea, herdoilak janda dagoen hitz hori, berriz erabilgarria izan dadin garbitu eta edukiz bete behar dugu. Bakea helburu politikoak lortzeko biolentziarik ez erabiltzea baita; baina bakea da gatazka politikoa dagoela onartzea ere; bakea da konfrontazioak ekarritako sufrimendu oro desagertzea, eta bakea da eskubide zibilak eta politikoak herritar guztientzat berdinak izatea. Eta herritarrek euren etorkizuna askatasunez erabakitzea, hori ere bakea da. Berba bakarra eta hamaika esanahi: horiei guztiei gorputza ematea denon zeregina da, eta ARGIA egiten dugunok, euskarazko hedabideetan dihardugunok oro har, erronka berezia izango dugu datozen urteetan hitza janzen.

Ateak zabaltzeko tenorea da. Gure historia hurbilak utzitako lezioak ezin dira ahaztu irekiko den garai politiko berrian. Azken bi mendeetan Euskal Herrian izan diren gatazka armatu guztiek ezaugarri berdina dute: armak isiltzean ez dela bakerik izan, alde baten garaipena eta bestearen porrota baizik. Iragana garbi mintzo da horretaz, garaileen eta galtzaileen jokoek odol erreka berriak ekartzen dituzte-eta beti. Hori ez errepikatzeke abagune historikoa da oraingoa. Inoizko aukerarik onena, beharbada. Tresnak eskura daude: elkarrizketa eta negoziazioa. Horiek erabiliz denek irabaziko duten egoera sortzea da helburua, behar diren neurri guztiak hartuz. Borondatea da ate hori ireki dezakeen giltza bakarra.

Tartean, lan eskergera geratzen da azken hamarkadotako gatazka bortitzak pilotutako ondorioak gozotu eta konpontzeko. Sufrimendu asko eta handia egon da alde guztietan, oraindik odoletan dirauen sufrimendua. Egoera berriak zaharra gairatu dezan, min horiek arindu eta sendatzea ezinbestekoa izan da, eta berriro gerta ez daitezen neurri eta berme garbiak ezartzea.

Eta abertzaletasunak, zer? Oztopo gaindiezin bilakatu zen ETaren jarduna familia abertzaleen eta oro har euskal herritarren erabakitze ahalmena defendatzen duten jendeen arteko gutxieneko adostasuna lortzeko. Orain konfiantzaz ekin behar diote alderdiek Euskal Herriaren subiranotasunaren aldeko elkarlanari, luzamendutan ibili gabe, sortuko diren unean uneko desadostasunak inteligentzia politikoz maneiatuz. Handia da beharra (hitzaren bi zentzuetan). Are handiagoa ordea, irabazteko dagoena.

Guztiaren gainera, herritarrek profitatu beharko dute momentua euren kezka eta aldarriak entzunarazteko, biharko Euskal Herriak, bestelako Euskal Herri horrek, erabateko aitortza edukitzeko urratsak emateaz gain, justizia soziala eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna izan ditzan ipar, etorri berri direnek eduki ditzaten bertan jaiotako eskubide berberak, kontzientzia ekologikoa sakon errotua, irakaskuntza eredu aurrerakoa, kultura berritzailea eta euskara eguneroko zeregin orotan normalizatu.

Orrialdea pasatzera goaz, kapitulu bat fini da azkenik eta hurrengo hasiko da. Ez da kazetarien lana etorkizuna igartzea. Egunerokoa kontatzea, aztertzea, interpretatzea dira prentzalarion ohiko zereginak. Baina gauza batez seguru gaude: datorrena datorrela ARGIAK hor izan nahi du, gertatuko diren gorabehera guztien berri ematen, zubigintzatik, sakontasunetik eta independentziazatik.



»»

Garaileen eta galtzaileen jokoek odol erreka berriak ekartzen dituzte beti. Hori ez errepikatzeke abagune historikoa da oraingoa. Inoizko aukerarik onena, beharbada. Tresnak eskura daude: elkarrizketa eta negoziazioa. Horiek erabiliz denek irabaziko duten egoera sortzea da helburua, behar diren neurri guztiak hartuz.

»»